

udaltop

UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN  
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Behin honetara ezkerro... neurrialdia  
ere bai!!

EGILEA:

Josune Zabala Alberdi

DATA:

2018/05/17



## Aurkibidea

1. Neurraldia ere bai, ezta? .....	1
2. Zein leku du neurraldiak Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren Agendan?.....	1
3. Nola irudikatu dugu neurraldia?.....	3
4. Neurraldiaren ezaugarriak .....	3
4.1. Neurraldiaren metodologia .....	4
5. Neurraldiaren neurria .....	7
6. Bibliografia.....	8



## 1. Neurraldia ere bai, ezta?

*EUSKARALDIA*: 11 egun euskaraz programaren lehen zirriborrotik egonkortzerako bidean zela ezagutu genuen Lasarte-Orian “irten armairutik” erronkaren gainean egindako ikerketa. Pello Jauregi ikertzaileak aurkeztu zuen ekimenaren neurketa kuantitatiboaren emaitza: erronka hasi baino lehen, erronka amaitu orduko eta handik hiru hilabetera partaideek aitortutako datuak zein ziren erakutsi zigun. Ekimenean parte hartu zuten kideek emandako balioa berretsi eta objektibizatzen lagundu zigun lan hark.

Ondo dakigun bezala, *EUSKARALDIA* da herritarren hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskaltzaleak aktibatzeke xedez sortutako dinamika bat, eta 2017ko maiatzean aurkeztu zen lehenengoz, Udaltop topaketan, 2018rako aurreikusten zen proposamena. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta *Euskaltzaleen Topaguneak* aurkeztu zuten batera eta bestelako eragileei parte hartzeko gonbitea egin zitzaion.

Euskal Herri mailako ekimena izanik, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren (hemendik aurrera, HPS) helburu estrategikoetako lau batera gauzatzea gindoazelarik, zilegi bezain beharrezko jo genuen neurketa ere egitea. Gure indarrak, besteak beste, erabileran eta gizarte aktibazioan, lankidetzan jarri nahi ditugunez, goazen, bada, bidea eta helmuga neurtzera!

Hainbat eta hainbat modutan neur liteke ekimen bat, eta hainbat erpini begira jar gitezke ikerketan abiatzen garen guztietan. Hala, erabakia hartu behar zen hartan, erabaki genuen Lasarte-Oriako esperientzia Euskal Herri osora hedatzea. Pello Jauregi buru zuen ikerketa Euskal Herri mailan gauzatzea erabaki genuen. Soziolinguistika Klusterrarekin (hemendik aurrera, SLK) gauzatutako kontratu bati eskerrak abiatu gara neurraldirako prestakuntzetan.

Ikerketa bera HPSren helburu estrategikoetan nola kokatzen den, zein egiteko duen eta nola gauzatzea irudikatu nahi dugun kontatzen duen amaiera gabeko testu labur bat da hau.

## 2. Zein leku du neurraldiak Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren Agendan?

Ezbairik gabe, leku handia eta sendoa.

Euskadi 2020 Programan kokatzen den Euskararen Agenda Estrategikoa (2017-2020) da HPSren legealdiko ibilbide orria, eta bertan zehaztutako bederatzi helburu estrategikoetatik laurekin du lotura zuzena ikerketa honek. Hauexek dira helburu estrategikoak eta ikerketa honekiko dituzten lotura esanguratsuenak:

3. Helburu estrategikoa: euskal herritarren euskararen erabilera handitzea eta kalitatea hobetzea.

3.1. Etxean eta lagunartean.

3.2. Hezkuntza arautuan eta ez arautuan.

3.3. Lan munduan.

3.4. Aisialdi-arloan: ingurune digitala, kirola, kultura, hedabideak...

Helburu honen baitan, euskararen erabileran aurrerapausoak emateko zenbait egitasmo berritzaile abian jartzea proposatzen da. Batetik, euskaldunen (euskaldun askotariko: euskara ulertu bai, baina erabiltzen ez dutenak; euskara zerbait bakarrik ulertzen dutenak; euskara ulertu eta erabiltzen dutenak...) artean euskararen erabilera areagotzeko euskararen



eremu osoa hartuko duen egitasmoa martxan jartzea, toki mailako Administrazioa eta elkarte zein eragile nagusiekin elkarlanean (365 egun egitasmoa eta haren aldaerak, esate baterako).

6. Helburu estrategikoa: euskara biziberritzeko ezagutzaren garapenean ikerkuntza eta berrikuntzan sakontzea.

6.1. Euskararen corpora garatzea: hiztegiak, Euskalterm...

6.2. Euskararen azterketa soziolinguistikoa egitea: ikerketa kuantitatiboak (adierazle sistema eta datutegiak) eta kualitatiboak.

6.3. Arnasguneei eta eremu funtzionalei buruzko azterketak ugaritzea.

Hizkuntza jakin baten biziberritze prozesua gauzatzeko ezinbesteko ardatza da ikerkuntzan eta berrikuntzan sakontzea. Corpusari eta estatusari dagozkion ikerketak eta proba berriak egitea beharrezkoa dugu gertatzen denaren berri izan eta gertatzen zaiguna hobeto uler dezagun. Ildo beretik, egoera jakin batetik besterako urratsak eta aldaketak gertatzeko berrikuntzarako urratsak ematea ezinbestekoa da, eta horretan ikerketak aukera paregabea ematen du: probalekua eta neurgailuak ematen dizkigu eskura. 11 egun euskaraz ekimena bera da probaleku ezin hobe, maila horretan.

7. Helburu estrategikoa: hizkuntza bizikidetzan oinarritzen den gizarte aktibazioa indartzea.

7.1. Euskararen eta hizkuntza politikaren inguruko adostasuna lortzea.

7.2. Euskararen unibertsoa eta bizipena, gizarte osoan duintzea.

7.3. Hizkuntza bizikidetzarako portaera berritzaileak sustatzea.

7.4. Euskararekiko atxikimendua eta hizkuntzen arteko harremanak sendotzea.

Euskararen Aholku Batzordearen bidez, euskararen erabileran eragiten duten faktoreen inguruko hausnarketa bideratu nahi da; horretarako, abiapuntua eta erdigunea izango da euskararen erabilera sustatzeko egitasmo erraldoia: 365 egun euskaraz edo haren aldaerak.

Ildo horretatik, Euskararen errealitatetik (hizkuntza gutxitua izanda) begira jarrita irekitzen zaizkigu hizkuntzen arteko bizikidetzara jorratu eta berdintasunean sakontzeko aukera berriak. Euskarak Eusko Jaurlaritzaren eta gizartearen agerlekuan izan beharko lukeen tokia birplanteatzera eta hizkuntza bizikidetzara emankorra lortzeko giltzak aztertzea gonbidatzen gaitu honek guztiak; eta bide batez, hizkuntzen (eta hiztunen) arteko harreman osasungarriak lortzeko aukera berriak proposatu eta erakunde publikoak nahiz gizarte eragileak jomuga horri begira lanean jartzea.

8. Helburu estrategikoa: euskararen lurraldea osatzen dugun eragile publikoekin eta pribatuekin lankidetzara berritu eta ugaritzea.

Hartan, ezinbesteko dugu elkarriketan eta elkarlanean oinarritzen den gobernantza; erakunde publikoekin eta gizarte eragileekin elkarrekin lan egitea adostuak diren helburuak lortzeko, baita instituzioen arteko elkarlana sendotzea ere. Izan ere, adostasun sozial zabalenean oinarritzen den politika sustatzeak esan nahi du elkarriketan oinarritzen den politika garatzea eta funtzio banaketa orekatua bermatzea.

Horren adibide bat da 2017an sinatutako "Hiruko Ituna": Eusko Jaurlaritzak, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak eta Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko hitzarmena sinatu zuten Iruñean 2017ko uztailaren 3an. Lehenengo aldiz



euskararen eremu osoa hartzen duen Akordio honek aukera ematen digu lankidetzarako bide berriak jorratzeko, eta horretan, *11 egun euskaraz* ekimenaren neurketa osoa elkarrekin egiteko.

Leku handi eta sendo horretan ezin hobeki lekutzen da neurraldia, eta ikusmira horretatik hartu dira erabakiak, ekin zaio lanari.

### 3. Nola irudikatu dugu neurraldia?

---

Aurrez aipatu bezala, Euskararen Aholku Batzordeetako *Euskararen erabilera eta gizarte aktibazioa azpibatzerdean* proposatu eta onartu da ekinaldi honen ikerketa egitea. Hartan, HPSko Agendaren helburuetatik zetorren ekimena neurtzeko beharra eta Soziolinguistika Klusterrak haren gaineko ikerketa egiteko proposamena uztartu zirenean ekin zitzaion irudikapenari. Aholku batzordearen onespenez hasi ginen Euskal Herri mailako ikerketa zirriborratzen, eta denboran-denboran, zirriborroa osatuz joan gara. Pello Jauregiren zuzendaritzapean ari da lantzen ikerketa Soziolinguistika Klusterra (SLK), eta jarraipena egiten ari gatzazkio horretarako sortutako lan-taldea: Pello Jauregi, Soziolinguistika Klusterra, Euskaltzaleen Topagunea, Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritza (Gipuzkoako Foru Aldundia), Nafarroako Gobernuko Euskarabidea, Euskararen Erakunde Publikoa eta Hizkuntza Politikako Sailburuordetza (Eusko Jaurlaritza).




Neurraldiaren hasieran egokitu zaigu Euskal Herri mailakoa izango den neurketa nola egin pentsatzea: datuak jaso, antolatu eta aztertzeak aukerak eta baliabideak aurreikustea, emaitzak antolatzeko aukerak bilatzea; azken batean, ikerketarako giza baliabide eta materialak irudikatzea. Irudikatzetik testuratzeko urratsa ere emana dugu oraintxe. Soziolinguistika Klusterrak gauzatu duen testu osatuago baten (Soziolinguistika Klusterra, 2018) hustuago bat aurkeztuko dugu orain.

### 4. Neurraldiaren ezaugarriak

---

Eraldatze prozesuei buruzko galderei erantzun nahi zaie neurketa honen bitartez: alde batetik, hiztunen erabileran eta hiztunengan begirada jarrita, eta bestetik, eraldaketa helburu duen programak sortzen duen gizarte mugimenduaren ezaugarrietan.

Galdera orokor hauek erantzutera jarriko gara ikerketa honetan:

-  Hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesuak nola gertatzen dira hiztunengan eta hiztun taldeetan?
-  *11 egun euskaraz* ekimenak zein eragin du hizkuntza erabileran (norbanakoan eta taldean)?
-  Zein dira hizkuntza ohiturak aldatzera eragin dezaketen prozesuak antolatzeko gako nagusiak?

Neurraldiak begirada dauka jarrita aldi baten: *11 egun euskaraz* testuinguruan. Testuinguru horretan, partaideek hartzen dituzten erabakiak eta jokabideak zein diren jakin nahi dugu. Testuinguru horretan, antolaketa aldetik gertatzen diren mugimendu askotarikoen ezaugarriak zein diren jakin nahi dugu.



Neurraldia begira jarriko da pertsoneri: *Belarriprest* eta *Ahobiziak* izango dira neurraldiari informazio esanguratsuena emango diotenak. Euren hizkuntza ohituren inguruko informazioa emango digute, besteak beste; neurraldian zehar, eta handik denbora batera, hartutako erabakien eta emandako urratsen berri emango digute; baita euren bizipenen berri ere. Programa honetan buru-belarri ekinean dabiltzan antolatzaileak izango dira gure informazioaren beste iturri nagusia. Prozesu honetako mugimendu askotarikoez hitz egingo digute: antolakuntza, saretzeaz, harremanez, ahalmenez, ezinez...

Neurraldiak, horrez gainera, begirada jarrita dauka espazio soziolinguistiko jakinetan: gune soziolinguistiko bakoitzeko lagin bana jaso eta aztertzea erabaki dugu, uste baitugu horrela gaiari buruzko ekarpen berriak egin ahal izango ditugula. Herriz herriko ikerketa ez... administrazio mailako langak ireki eta banaketa soziolinguistikoaren arabera antolatuko da ikerketa. Lau gune soziolinguistiko definitu dira euskararen ezagutza mailaren arabera. Mapa Soziolinguistikoan eta Inkesta Soziolinguistikoan Hegoalderako erabiltzen diren lau guneak hartuko dira aintzat. Iparraldean, berriz, VI. Inkesta Soziolinguistikoak jasotzen dituen hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak erabiliko dira, ez baita ukagu herrietako euskara-gaitasunari buruzko datu ofizialik:

1. Lehen gune soziolinguistikoa: biztanleen % 20 baino gutxiagok badaki euskaraz.
2. Bigarren gune soziolinguistikoa: biztanleen % 20-50ak badaki euskaraz.
3. Hirugarren gune soziolinguistikoa: biztanleen % 50-80k badaki euskaraz.
4. Laugarren gune soziolinguistikoa: biztanleen % 80 edo gehiagok badaki euskaraz.

Gune soziolinguistikoei ez ezik, herrialdeei ere begira jarriko gara, eta ahal den neurrian, herrialde bakoitzeko ar-gazkia ateratzeko modua egingo dugu.

Neurraldian begiratu nahi diegu zenbakiei eta hitzei. Hitzunen eta hitzun taldeen eraldatze prozesuak zenbakitan eta kontakizunetan jasoko ditugu. Prozesu honen guztiaren antolaketa buruzko erantzun berriak ere bilatu nahi ditugunez, antolatzaileen kontakizunak ere jasoko dira. Gure ikerketa-gai den testuinguruari lotutako datu kuantitatibo eta kualitatiboak lortzeko bide jakin bat marraztu dugu.

## 4.1. Neurraldiaren metodologia

Esanda bezala, neurraldiaren bitartez informazio kuantitatibo eta kualitatiboa eskuratu nahi dugu hizkuntza ohituren eta gizarte aktibazioaren inguruan. Zer eta nola jasoko dugu zenbakitan? Zer eta nola hitzetan? Honaxe, labur, gure metodologia:

### ALDERDI KUANTITATIBOA

Ikerketa kuantitatiboaren helburua da *11 egun euskaraz* ekimenak parte-hartzaileen hizkuntza-ohituretan izango duen eragina neurtu eta eragin hori denboran zehar aztertzea. Galdetegi kuantifikagarri bat betetzea eskatuko zaie partaideei, eta hiru alditan bete beharko dute: ekimena burutu aurretik, ekimena burutu orduko eta ekimena burutu eta hurrengo hilabeteetan.

Aurrez esan dugun moduan, euskararen ezagutza jakina duten gune bakoitzean *11 egun euskaraz* ekimenak zein eragin duen ikusi nahi dugunez, honako ezaugarriak lagina aztertuko dugu:





- Topagunearen webgunean izena emango duten pertsonen erantzunak izango ditugu; posta elektronikoko bidez betetako galdetegiak izango dira.  
  
Posta elektronikoa baliatzen duten partaideen informaziora murriztuko da, beraz, emaitza. Datu bilketarako landa-lana mugatzeko erabakia izan da hauxe.
- Gune soziolinguistiko bakoitzeko galdetegi sorta jakin bati egingo zaio jarraipena.  
  
Lehen aurreikuspenetarako, gune soziolinguistiko bakoitzean gutxi gora-behera 400 partaideren datuak aztertzea izango da helburua (nahiz gehiago jaso ahal izango diren). Beraz, lau gune direnez, guztira 1.600 partaideren erabilera datuak aztertuko dira.  
  
Gune bakoitzerako akats tarte  $\pm$  % 5etik beherakoa izango da, % 95eko konfiantza mailarekin eta  $p=q=0,5$  izanda. Horrek esan nahi du emaitza orokorren akats tarte hori baino dezente txikiagoa izango dela.
- Gune soziolinguistikoka ez ezik, herrialdeka ere jaso eta aztertuko dira galdetegiak, beraz, herrialde bakoitzeko datuak ere analizatu ahal izango dira.
- Hiru garaitan erantzuna eman duten partaideen galdetegiak aztertuko dira bakarrik.  
  
Ziurrenez, ekimeneko partaide guztiek ala guztiek ez dituzte amaierara arteko galdetegi guztiak erantzungo, beraz, jasotako galdetegi guztiak ez, baizik amaiera arte erantzuna eman duten galdetegiak bakarrik hartuko dira kontuan.
- *Belarriprest* eta *Ahobizien* galdetegien erantzunak banatuta aztertuko dira.  
  
Partaide mota bakoitzaren erantzunak ezberdinak diren ikusteko, banatu egingo dira lagin orokorraren baitan azpi-lagin moduan. *Belarripresten* eta *Ahobizien* garapena zein izan den ikusi nahi dugu. Bakoitza bere aldetik.
- *Belarriprest* eta *Ahobiziak*, bakoitzak bere aldetik egiten duen bidez gain, bien arteko harremanak nolakoak izan diren aztertuko da.  
  
Talde bakoitzeko galdetegietatik jasoko da bien arteko harremanen eta portaeren inguruko informazioa.

Esan bezala, lagin hori osatuko dute neurraldian zehar jasotako hainbat eta hainbat galdetegiak. Oro har, *Belarriprest* eta *Ahobiziei* galdetuko zaie euskararen ezagutzaren eta erabileraren inguruan. Aldi bakoitzean, ezberdin. Galdetegiaren abiapuntu gisa kontuan hartuko da *40 egun euskaraz / Irten armairutik* (Jauregi, 2017) ekimenean erabilitakoa. Aintzat hartuko da, halaber, Inkesta Soziolinguistikoan erabileraren inguruan egiten den galdera sistema ere. Horrelaxe irudikatu dira erantzun-aldiko galdegeiak:

Galdegeiak	1. Galdetegia	2. Galdetegia	3. Galdetegia
Datu pertsonalak	X		
Erreferentziazko datu bat (pertsona identifikatzeko balioko duena)		X	X
Parte-hartze mota ( <i>Ahobizil Belarriprest</i> )	X		
Hizkuntza gaitasuna	X		
Hizkuntza erabilera	X	X	X
Hizkuntza-ohiturak eta horien aldaketa	X	X	X
Motibazioa, euskararekiko	X	X	X
Ekimenarekiko espektatibak	X		
Ekimenaren konpromisoen betetze maila (egunero txapa jantzi izana edo ez, adibidez)		X	



Ekimenaren eraginkortasunaren balorazioa		X	
Ekimenarekiko asetatsun maila		X	
Ekimenean parte hartu ez dutenen iritzien balorazioa		X	

Izen emateetan, parte-hartzaileen datuak Topaguneak jasoko ditu lehenbizi, eta SLKri igorriko dizkio jarraian. Galdetegiaren kasuan, ordea, datuak SLK-k jasoko ditu zuzenean.

### ALDERDI KUALITATIBOA

Ekimenaren inguruan sortu diren esperientziak, bizipenak eta inpresioak jasota lortu nahiko genuke gizarte aktibazioaren eta eraldaketa prozesuen gaineko gakoak jasotzea. Eremu honetan gauzatzen ari diren ikerketak lagun, hizkuntza portaeretan eragin nahi duen ekimen, mugimendu edo prozesu kolektibo honen gaineko ezagutza esperimentaletik ateratako informazioa ordenatzea da helburua.

Pertsonen, ezagutzen eta ekintzen mugimenduaren emaitza askotarikoak jaso nahi ditugu, eta ahal den neurrian, prozesuak ulertu eta ordenatzeko ariketa egin. *11 egun euskaraz* ekimenak baditu hamaika arrazoi justifikatzeko ekimenak berak eraldaketa mota ezberdinetarako gonbitea egiten digula den-deno: antolakuntza eraldaketa, harreman eraldaketa, hizkuntza portaeren eraldaketa... Modu horietako bakoitza esplikatzeko ahalegina egin nahi dugu.

Azterketa honetan ere *40 egun euskaraz / Irten armairutik* (Jauregi, 2017) ekimenaren harira egindako ikerketarako metodologia hartuko da oinarritzat. Ikerketa kualitatiboaren ezaugarri nagusiak hauek izango dira:

- Bi partaide moten laginak jasoko dira: alde batetik, *Ahobizi* eta *Belarriprestek* idatziz kontatutakoa jasoko da; bestetik, ekimen handi honetako antolakuntza lanetan aritu diren antolatzaileei eskatuko zaie informazioa idatziz eman dezaten.
- Galdetegiak banatu eta jasoko dituzte horretara prestatuko diren herri edo auzoetako antolatzaileek.
- Ekimena gertatu ondoren egingo da ariketa hau: ekimenaren ondorengo ebaluazio edo itxiera ekitaldian edo bestelako elkartzeko garai eta tokiak baliatuko dira ikerketa kualitatiborako lagina jasotzeko. Alderdi kuantitatiboan ez bezala, lanketa honetan presentziari garrantzia emango zaio (nahiz eta beharrezkoa denetan, ariketa internet bidez egitea ere aurreikus daitekeen).
- Partaideak une horretan taldean egon arren, bakarka eta idatziz erantzungo dituzte galderak. Galdera batzuk aurrean izan, pentsatzeko denbora eman eta erantzuten jarriko ditugu. Edonola ere, antolatzaileen kasuan, beharrezkoa ikusiz gero, internetez egiteko aukera ere kontuan izango da.
- Galdera zehatzak egin ordez, galdera ireki gutxi batzuri (bat edo bi) erantzuna ematea eskatuko zaie partaideei.
- *Ahobizi* eta *Belarriprestei* egingo zaien galdeketari buruz: gune soziolinguistikoaren arabera banatuko da laginketa lana, baita azterketa bera ere. Gune soziolinguistiko bakoitzeko 50 pertsona ingururen ekarpenak jasotzea nahi dugu (guztira, 200 bat inguru), beti ere kontuan hartuz, diskurtsoen saturazio puntuak mugarik duela laginaren tamaina. Ulertzen dugu kopuru hau badela nahikoa esanguratsu alderdi kualitatiboaren gaineko informazioa jasotzeko. Handik aurrera, oro har, diskurtsoa errepikatu egin ohi da eta ez da informazio bereizgarrikerik ateratzen.





- Antolatzaileei egingo zaien galdeketa buruz: bi eratako informazioa eskuratu nahi dugu antolatzaileengandik. Batetik, ekimenaren antolaketan aritu direnez, prozesua gauzatzeko gakoan inguruan galdetuko zaie. Bestetik, antolatzaileak ekimeneko parte-hartzaileekin (eta parte-hartu ez duten bestelako herritarrekin) harremanetan izan direnez, ekimenaren inguruan ikusi eta sumatu dituzten jarreraren berri ematea ere eskatuko zaie. Guztira 50 bat antolatzailearen erantzunak jasotzea aurreikusten da, nahiz eta kasu honetan ere, laginaren tamaina diskurtsoen saturazioak markatuko duen. Antolatzaileen kasuan, gainera, perfil desberdineko pertsonak biltzen dituen lagin bat osatuko da: izan ditzakegu euskara teknikariak, euskara elkarteetako kideak, herritar aktibatuak...

## 5. Neurraldiaren neurria

*Euskaraldiaren* aurkezpenak jasotzen ditugunean behin eta berriz errepikatzen diren ideia batzuk iltzatzen zaizkigu gure barrunbeetan: “helburua baino garrantzitsuagoa da prozesua”; “erabileran jarri nahi dugu indarra”; “euskara ulertzen dutenekin parte hartu nahi dugu”; “geldialdian zegoen hori mugitzera goaz, elkarrekin eta lankidetzan, instituzioak eta gizarte zibila, administrazio ezberdinak batuta”... eta beste honako hau, tinko eta serio-serio jarrita esaten zaio publikoari: “mesedez, ez antolatu txokolotada bat, ez egin makro-merendola bat; *Euskaraldia* bide bat egitea da, proba ezberdinak izango dituena; mugitze bat, elkarrekin mugitze bat; adostua, jolastua...”. *Euskaraldia* ez da euskararen aldeko festa bat, *Euskaraldia* da azken urteetan elkarrekin adostu dugun diskurtsoa ekinaldian jartzeko proposamen berri bat: jarduera bat, ekiteko gonbidapen bat. Eta sentitzeko ere, bai, zergatik ez!

*Euskaraldiaren* lehen zirriborroa aurkeztu zenetik pasatu da urtebete. Ordutik hona mugitu da hamaika harri eta herri. Harrikozkor handiak leuntzea eta leunak pilatzea egokitu zaigu. Urrutira ikusten genuena baino olatu handiagoa hartzea egokituko zaigula badakigu; espero baino partaidetza handiagoa, egiteko modu berri eta hedatzaileagoak sortu dira, izaera askotariko lurralde eta taldeak... Hori da, lehen ikusmiran, intuizioak esaten diguna. Labur eta lehor.

Neurraldia prestatzen ari garenok irrikaz bezainbat begiratzen diogu zuhurtziaz ekimenari; eta jakina, baita gure ikerketari ere. Dagoeneko, gertatzen ari dira, testuinguru honi lotuta, hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesuak (bana-koak eta taldekoak; antolatze mailakoak...), eta horien kontaketa subjektiboak ordenatuta esplikatzeko izango da gure egitekoa, besteak beste.

Txokolotada edo makro-merendola baten dimentsiotik mila legoa harago joango den azterketak izango ditu hamaika ertz leuntzeko, eta haiei eskerrak jarraituko dugu berrekin eta berrikasten. Ekinean hasi besterik ez gara egin: Pello Jauregi gidari eta Soziolinguistika Klusterra, ikerkuntzan. Topaguneko kideak eta administrazioa, lagun eta jarraitzaile.

Behin honetara ezker... neurguneez, neurgailuez, neurketaz... esan dugu orain arte adostua. Neurria hartuko digu, ziur, neurraldiak berak ere, eta ordura artekoan ekinean jarraituko dugu.



## 6. Bibliografia

---

Jauregi, P. (2017) "Irten armaiturik. Baietz 40 egun euskaraz. Herri erronka. ikerketaren emaitzak". Lasarte-Oriako udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Soziolinguistika Klusterra (2018) *EUSKARALDIA. 11 egun euskaraz ekimenaren ikerketa: kuantitatibo eta kualitativoa* (barne txostena).